

Erref.- FMR / Legelari aholkularia

**DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK, HONAKOA**

**ZIURTATZEN DU:**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko Gobernu Batzordeak, 2021eko irailaren 30eko Ohiko Bileran, 5/21 zenbakiko Akta, besteak beste, honako erabaki hau onartu zuen:

**2. gaia.-** Leioako Laguntza Zentroan osasun-laguntzako 2 plaza eta postu amortizatzea, eta Santurtziko Laguntza Zentroan gizarte integrazioko goi-mailako teknikariaren 2 plaza eta postu sortzea.

**"Lehenengoa.-** Leioako Laguntza Zentroan osasun-laguntzailearen bi plaza eta postu amortizatzea; honako hauek dira:

- 2000550-0299 plaza eta 4181-0007 postua. Leioako L.Z.ko osasun-laguntzailea.
- 2000550-0276 plaza eta 4181-0030 postua. Leioako L.Z.ko osasun-laguntzailea.

eta, aldi berean, Santurtziko Itsasoko Etxean gizarte integrazioko goi-mailako teknikariaren bi plaza eta postu sortzea; postu horien atxikipena 1110611 *Osasun eta autonomia pertsonalaren sustapenerako zerbitzuak* - 05003- Santurtziko Itsasoko Etxea organikoari atxikiko zaizkio:

- 2000444-0104 plaza, 3165-0012 lanpostua - Gizarte integrazioko goi-mailako teknikaria, 3. txanda.
- 2000444-0105 plaza, 3165-0013 lanpostua - Gizarte integrazioko goi-mailako teknikaria, 3. txanda.

**Bigarrena.-** Erabaki honek hartzen den egunean izango ditu ondorioak. Plaza eta postu berriak betetzeko ezaugarriak, betekizunak eta baldintzak orain ezarritakoak izango dira, eta halaxe deskribatzen dira eranskin horretan.

**Hirugarrena.-** Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 24ko 2/2021 Foru Arauaren 12. artikuluan, I. kapituluko gastuen gehikuntza mugatzeari buruzkoan, jasotako aurreikuspenaren arabera, hemen definitutako plazak eta lanpostuak amortizatzeak eta aldi berean sortzeak ez dakar I. kapituluko gastuen gehikuntza, horien eragina neutroa delako.

**Laugarrena.-** Erabaki honen berri ematea Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioko buruari eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuko buruari.

**Bosgarrena.-** Iragarki-oholean, Erakundearen webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, argitaratzeko agintzea.



Eta horrela jasota gera dadin, erabakitakoa betez eta bidezko akta onestetik ondorioztatzen diren baldintzen menpe, agiri hau egiten dut Bilbon, bi mila eta hogeita bateko irailaren hogeita hamarrean.

GUFEKO GOBERNU BATZORDEKO  
IDAZKARIA

Sin.: David Latxaga Ugartemendia

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large circle with a vertical line through it and a horizontal line across the middle, with several loops and a long tail extending to the right.